



ASTEBURU HONETAN, 5.000 IKASLE BAINO GEHIAGO ESKOLA KIROLEKO LEHIAKETETAN HASIKO DIRA DONOSTIAN

➤ **Donostia Kirolak gurasoentzako sentsibilizazio kanpainarekin jarraitzen du "Ama, aita, jolastu nahi dut" leloarekin, eta haurrak eta nerabeak kiroleko indarkeriatik babesteko protokoloa martxan jarri du**

Hurrengo larunbatean, urriaren 21ean, Donostiako eskola kiroleko jardueren programako lehiaketak hasiko dira, Donostia Kirolak koordinatuta.

Kiroletako eta Bizitza Osasungarriko zinegotzi Iñaki Gabarainek jardueraren garrantzia nabarmendu du: "Bizitza osasungarriko ohiturak sustatzen ditu haurren artean, eta interakzioa, kirola egiten dutenean. 2023/24 ikasturtean, 5.000 ikasletik gora dira benjaminen eta kimuen kategorietan parte hartuko dutenak, eta horrek esan nahi du Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. mailetako ikasleen % 70ek baino gehiagok jardungo dutela antolatzen diren lehiaketetako baten batean. Neskak partaide guztien % 42 dira".

Kirol anitzeko lehiaketen egutegiak bi eredu ditu. Alde batetik, hiruhileko bakoitzean kirol modalitate desberdina egingo dutenen eredia, eta bestetik, ikasturte osoan zehar asteburuz asteburu kirol modalitateak aldatzea erabaki duten ikastetxeen eredia. Donostia Kirolarekin lankidetzan, ikastetxeek erabaki dute zer kirol modalitate egingo dituzten, zer ordenatan egingo dituzten, zer instalazio erabiliko dituzten eta zer klubek lagunduko dieten jardueren kontrol teknikoan.

Prentsa oharra

Nota de prensa



la mila talde arituko dira bi kategorietan, eta lehiaketa modalitate hauetan parte hartuko dute: futbol sei, 3x3 saskibaloia, areto futbola, futbol zortzi, eskubaloia, hockeya, errugbia, miniboleibola eta pilota. Horrez gain, igeriketako, atletismoko, triatloiko eta txikizunbako jardunaldiak egingo dira, besteak beste.

Kimuen kategoriako egutegia

Kimuen kategorian, ikasle guztiek gutxienez bi kirol modalitate kolektibo egiteko aukera izango dute ikasturtean zehar. Aurten, 409 talde inskribatu dira, eta kiroliek eskatuenak saskibaloia eta futbola izan dira. Horien atzetik, hockeya eta eskubaloia eskatu dituzte gehienbat.

Mutilek gehien aukeratu dutena futbola izan da orain ere, baina inskribatu diren taldeen ia % 25 neskenak dira dagoeneko. Nesken artean, gehien egiten den kirola saskibaloia da Donostian.

Beste jarduera batzuk

Eskola kiroleko programan ez daude lehiaketa jarduerak soilik. Beste sustapen jarduera asko ere egiten dira: igeriketako kanpaina, UDA kanpaina, izotz gaineko irristaketa, etab.

“Ama, aita, jolastu nahi dut” sentsibilizazio kanpaina

Donostia Kirolak sentsibilizazio kanpaina mantenduko du aurten, Donostiako eskola kiroleko programak zer ezaugarri eta helburu dituen azaltzeko ikasleen gurasoei eta, halaber, eskola kiroleko lehiaketetan jarrera egokiak izatea zeinen garrantzitsua den kontzientziazteko, lehiaketen funtzio hezigarria indartze aldera.

Sentsibilizazio kanpainan, hurrek berek hitz egiten diete gurasoei, eskola kiroleko benetako protagonistak haiek direla esateko; neska-mutilak, alegia. Aldi berean, jolasten uzten dietela eskertzen diete (“Ama, aita, eskerrik asko”), presiorik gabe, kirol jardueraz gozatzeko.

➤ HAURRAK ETA NERABEAK KIROLEKO INDARKERIATIK BABESTEKO PROTOKOLOA

Donostia Kirolak protokoloa onartu zuen 8/2021 Lege Organikoan xedatzen dena oinarritzat hartuta (ekainaren 4koa da, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralarena). Hala, protokoloak haur eta nerabeentzako ingurune seguru bat sortzea du xede, hiriko jarduera fisikoan eta kirol jardueran. Era horretan, modu egokian garatu ahalko dira kirolari eta pertsona gisa. Azken batean, adingabeen osotasun fisiko, psikiko eta morala babestu eta zaindu nahi da, edozein indarkeria formaren aurrean.

Prentsa oharra

Nota de prensa

Protokoloa Udalaren kirol instalazio guztietan eta bertan antolatzen diren jardueretan aplikatzen da, berdin du Donostia Kirolak zuzenean antolatzen dituen edo beste erakunde batzuek antolatzen dituzten: klubek, ikastetxeek...

Udalaren kirol instalazio bakoitzean, Donostia Kirolak izendatutako babes ordezkari bat dago, eta hark lideratu eta kudeatuko du babes estrategia osoa. Halaber, instalazioetan adingabeekiko indarkeria kasurik suertatuz gero, horren berri eman behar zaion erreferentziatzko pertsona izango da.

Legian finkatutakoari jarraikiz, haurren eta nerabeen kontrako indarkeriatzat joko da hau guztia, besteak beste: edozein tratu txar fisiko, psikologiko edo emozional, eskola jazarpena, ziberjazarpena, sexu jazarpena, datu pribatuak zabaltzea eta zigor fisiko, umiliagarri edo laidogarriak.

Ildo horretan, onlineko komunikazio kanal bat martxan jarri da informazioa emateko, baita anonimo ere. Indarkeria egokera bat detektatu edo jasan duen edozeinek edo horrelako egoera bat gerta daitekeelako zantzuak ikusten dituen edozeinek horren berri eman beharko du, izan komunikazio kanal hori erabiliz izan instalazio bakoitzeko babes ordezkariarekin harremanetan jarritz. Informazio kanal horretara sar daiteke donostia kirola.eus webgunetik, edo kirol instalazioetan hainbat lekutan jarriko diren QR kodeak erabiliz.